

ASEGURUEN TEORIA OROKORRA - Ezagupenen Testa

Testa burutzeko argibideak:

- Zuzen erantzundako galdera bakoitzak puntu bat emango du, gaizki erantzundakoek puntu bat kenduko dute, eta zuriz utzitako galderak ez dute punturik emango ezta kenduko ere.
- Testa gainditzeko gutxienez puntuen erdiak lortu behar dira. 45 galdera daudenez, gutxienez 22.5 puntu lortu beharko dira.
- Erantzun anitzak dituzten galderetan, erantzun zuzen bat baino gehiago egon daiteke. Erantzuna ondo edukitzeko, erantzun zuzen guztiak markatu behar dira.

1.- Asegurua, ondorengo zein elementuren transferentzian oinarritzen da?

- a) Arriskuak b) Ezbeharrak c) Prima d) Hornidurak e) Interesak

2.- Arriskuen homogeneotasuna lortzeko, kontutan izan behar dugu, kontrataturiko arriskuen masak:

- a) Izaera berdina edukitzea b) Sakabanaturik egotea c) Aukeratuta egotea
d) Kontzentraturik egotea e) Aurrekoetatik bat ere ez

3.- Aseguratutako Zenbatasunaren homogeneotasuna lortzeko, funtsean ondorengo prozesuak erabiltzen dira:

- a) Gainasegurua b) Koasegurua c) Infrasegurua
d) Berrasegurua e) Aurrekoetatik bat ere ez

4.- Koasegurua, aseguru kontratuaren formatu bat da:

- a) Bai b) Ez

5.- Arrisku bezala ulertzen dugu, gertaera kaltegarri bat zoriz jazotzeko posibilitatea dela:

- a) Bai b) Ez

6.- Arriskua, ikuspegi aseguratzailetik izan behar da:

a) Posiblea b) Ziurra c) Zorizkoa d) Neurgarria e) Kezkagarria

7.- Prima, Aseguratzailleak Aseguratuari ematen dion zerbitzuarengatik ordaindutako prezioa da. Definizio hau ikuspegi teknikoari dagokio:

a) Bai b) Ez

8.- Prima naturala edo arrisku prima, periodo zehatz baten gertatzen diren ezbeharren kostuak estaltzeko beharrezko kantitatea da:

a) Bai b) Ez

9.- Aseguruen enpresariak, merkataritza enpresari moduan dagozkion erreserba “orokorrez” gain, beste “erreserba” mota edo hornidura batzuk eratu behar ditu jarduera aseguratzailearen propioak direnak:

a) Bai b) Ez

10.- “Ondare” erreserbak, Aseguratzailleak libreki erabili ezin dituen primen zatiarekin egongo dira osaturik, datozen ekitaldietan betebeharrak estaltzera bideraturik egongo direlako:

a) Bai b) Ez

11.- Kontsumitu ez diren primen hornidurak, ekitaldian kobratu diren, baina hurrengo ekitaldiari dagozkion primen zatiarekin egongo dira osatuta, hau da, itxiera datatik estalduraren amaierara doan periodoari dagozkienak:

a) Bai b) Ez

12.- Kontsumitu ez diren primen hornidura kalkulatzeko polizaz poliza sistemaren bidez egingo dira kalkuluak:

a) Bai b) Ez

13.- Egonkortze hornidurak, izenak dioen bezala, adar bakoitzean egonkortasuna lortzea izango du helburu:

a) Bai b) Ez

14.- Aseguru Pribatuaren Antolamendurako eta Ikuskapenerako Araudiak eta Legediak, hornidura teknikoen kalkulurako eta inbertsiorako prozedura eta arauak biltzen dituzte:

- a) Bai b) Ez

15.- Horniduren inbertsioak, hurrengo printzipioak jarraituz egin beharko dira:

- a) Segurtasuna b) Errentagarritasuna c) Likidezia
d) Dispersioa e) Dibertsifikazioa

16.- Hornidura Teknikoen inbertsioak, besteak beste, ondorengo aktiboetan egon ahalko da banaturik:

- a) Diruzaintza b) Balore Higigarriak c) Kredituak
d) Ondasun Higiezinak e) Aurrekoetatik bat ere ez

17.- Arriskua asegu ezina izan daiteke, arrazoi...

- a) Teknikoengatik b) Juridikoengatik c) Larritasunagatik
d) Sinpletasunagatik e) Aurrekoetatik bat ere ez

18.- Debekaturiko produktuen trafikotik eratorritako arriskuak asegu ezinak izango dira arrazoi teknikoengatik:

- a) Bai b) Ez

19.- Bizi-aseguruetan, arriskuen hautaketako funtsezko faktoreak dira:

- a) Adina b) Lanbidea c) Ahalmen ekonomikoa
d) Bizilekua e) Ohitura pertsonalak

20.- Aseguruaren objektua interesa da:

- a) Bai b) Ez

21.- Interesa, ekonomikoki baloratu daitekeen erlazio bat da, pertsona baten eta beharrian bat asetzeko gai den ondasun baten artekoa:

- a) Bai b) Ez

22.- Izaera Publikoko Aseguratzailen barruan, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaz gain, Derrigorrezko Aseguruen Komisaria eta Aseguruen Zuzendaritza Orokorra aurki ditzakegu:

- a) Bai b) Ez

23.- Derrigorrezko Aseguruen Komisariak, Bidaiarien Derrigorrezko Asegurua modu eksklusiboan gestionatzen du:

- a) Bai b) Ez

24.- Derrigorrezko aseguruaren harpidetza Estatuko Erakunde baten egin behar da:

- a) Bai b) Ez

25.- Aseguruen Konpentsazio Partzuergoa erakunde pribatu bat da, eta besteak beste helburu moduan erregimen eksklusiboan, aparteko arriskuak edo katastrofikoak estaltzen ditu:

- a) Bai b) Ez

26.- Bizitza adarreko Aseguruen Sozietate Anonimo bat eratzeko, ezinbesteko baldintza da, gutxienez, kapital bat izatea...:

- a) 9 milloikoa b) 25 milloikoa c) 80 milloikoa
d) 160 milloikoa e) 320 milloikoa

27.- Aseguruen Sozietate Anonimoetan, Kapital Soziala bere osotasunean egon behar da harpideturik, eta gutxienez ordaindurik:

- a) %25ean b) %50ean c) %75ean d) %83an e) %100ean

28.- Zein elementuren garapenean izan dute Borondatezko Gizarte Aurreikuspenenerako Erakundeek garrantzia handia Euskal Autonomia Erkidegoan?

- a) Etxeko Aseg. b) Aurreikuspen Planak c) Pentsio Planak
d) Jubilazio Aseg. e) Bizitza Aseg.

29.- Borondatezko Gizarte Aurreikuspenerako Erakundeek, beraien funtzionamendurako, 500 milioiko kapital sozial minimoa izan behar dute:

a) Bai b) Ez

30.- Kalte-ordainketen printzipioaren arabera, kalte-ordainketa ezingo da izan ezbeharraren ondorioz jasotako kaltea baino handiagoa:

a) Bai b) Ez

31.- Pertsonen Aseguruetan, edozein delarik jasandako kaltea, kalte-ordainketa aseguratutako kapitalaren edo zenbatasunaren berdina izango da:

a) Bai b) Ez

32.- Birjarpen balioa: ondasunaren berrirako balioari, makina edo ondasuna dagokion lekuan eta funtzionatzeko prest uzteko gainerako gastuak gehituz lortzen da:

a) Bai b) Ez

33.- Aseguratutako zenbatasuna, interesaren balio aseguragarriarekin bat datorrenean, aseguru osoan egongo gara:

a) Bai b) Ez

34.- Arau proportzionala, kalteen aseguruetan gainaseguru egoera dagoenean aplikatzen da:

a) Bai b) Ez

35.- Arau proportzionala ez aplikatzea adostu dezakete kontratatzaileek:

a) Bai b) Ez

36.- Soberakinen Berrasegurua, ezbeharren berrasegurua edo berraseguru ez-proportzionalen barruan kokatzen da:

a) Bai b) Ez

37.- Ezbeharren Berraseguruetan, ordainduko den primaren zenbatekoa Aseguratutako Zenbatasunaren proportzioan ezarriko da:

- a) Bai b) Ez

38.- Aseguruaren garapena, garapen ekonomikoaren funtzioa da:

- a) Bai b) Ez

39.- Aseguru Agenteak, agente bakar eta agente anitzetan sailka daitezke:

- a) Bai b) Ez

40.- Aseguru Artekariak, aseguru modalitate bakarrean lan egin ahalko dute Aseguratzailer bakoitzarekin:

- a) Bai b) Ez

41.- Agenteen eta Erakunde aseguratzailer artean ezartzen den erlazioak, merkataritza izaera du:

- a) Bai b) Ez

42.- Existitzen dira aseguru modalitate batzuk, non ez den beharrezkoa Agenteen edo Artekarien bitartekaritza egotea:

- a) Bai b) Ez

43.- Bai aseguru pribatuetan, zein gizarte aseguruetan, irabazi asmoa dago:

- a) Bai b) Ez

44.- Aseguru Pribatuen Antolamendurako eta Ikuskapenerako Legedian zehazten diren arauak aplikagarriak dira, bai Aseguru Erakunde Pribatuentzat zein Gizarte Aseguruentzat:

- a) Bai b) Ez

45.- Aseguruen Zuzendaritza Orokorra, Ekonomia Ministerioaren barruan dago kokatuta:

- a) Bai b) Ez

ERANTZUNAK

1	a
2	a
3	b, d
4	a
5	a
6	a, c, d
7	b
8	a
9	a
10	b
11	a
12	a
13	a
14	a
15	a, b, c, e
16	a, b, c, d
17	a, b
18	b
19	a, b, d, e
20	a
21	a
22	b
23	b

24	b
25	b
26	a
27	b
28	b
29	b
30	a
31	a
32	a
33	a
34	b
35	a
36	b
37	b
38	a
39	b
40	b
41	a
42	a
43	b
44	b
45	a